



AGINDUA BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA,
ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZ ONARTZEN
BAITA EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN EREMUAN
ADINEKOENTZAKO EGOITZA-ZENTROEI
BURUZKO DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU
PROIEKTUA

ORDEN DE LA CONSEJERA DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES DE
APROBACIÓN PREVIA DEL DECRETO DE
MODIFICACIÓN DEL DECRETO DE
CENTROS RESIDENCIALES PARA
PERSONAS MAYORES EN EL ÁMBITO DE
LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS
VASCO

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren
ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezartzen
da xedapen orokorrak egiteko bete
beharreko prozedura.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del
Procedimiento de Elaboración de las
Disposiciones de Carácter General
determina el procedimiento que se
deberá observar para la elaboración de
las disposiciones de carácter general

Aipatu legearen 12. eta 13. artikuluetan
ezarritakoaren arabera, Berdintasun,
Justizia eta Gizarte Politiketako
sailburuak 2023ko martxoaren 3ko
hasiera-agindua eman zuen, zehazki,
Euskal Autonomia Erkidegoko
Adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko
Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua
egiteko prozedura hastekoa.

De conformidad con lo establecido en los
artículos 12 y 13 de la mencionada
norma, en fecha 3 de marzo de 2023 se
dictó Orden de la Consejera de Igualdad,
Justicia y Políticas Sociales, por la que se
dio inicio al procedimiento de
elaboración del proyecto de decreto de
modificación del Decreto de Centros
Residenciales para personas mayores en
el ámbito de la Comunidad Autónoma del
País Vasco.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren
ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. eta
15. artikuluetan xedatutakoari jarraituz,
proiektuaren testua elebitan idatzi da, eta
agindu honi erantsi zaio.

Atendiendo a lo dispuesto en los artículos
14 y 15 de la precitada Ley 6/2022, de 30
de junio, del Procedimiento de
Elaboración de las Disposiciones de
Carácter General, se ha procedido a la
redacción del texto del proyecto en forma
bilingüe, que se adjunta a la presente
orden.

Azaldutako guztia kontuan izanda,

En virtud de lo anteriormente expuesto,

EBATZI DUT

RESUELVO:

LEHENA. Aurretiaz onartzea Euskal
Autonomia Erkidegoaren eremuan

PRIMERO: Aprobar con carácter previo el
proyecto de decreto de modificación del
Decreto de Centros Residenciales para



Adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

Personas Mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

BIGARRENA. Aipatutako araua egiteko prozedurarekin jarraitzea, eta behar diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko martxoaren 3ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastekoan, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

SEGUNDO: Disponer la continuación del procedimiento de elaboración de la citada norma, ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, de conformidad con lo establecido en la Orden de 3 de marzo de 2023, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se acuerda el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto de modificación del Decreto de Centros Residenciales para Personas Mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco , y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Sin/Fir: NEREA MELGOSA VEGA
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA
CONSEJERA DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

xxx/xxx DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua aldatzen duena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikulua bidez, batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa ezartzen da, eta, bestetik, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen zerrendan, adinekoentzako egoitza-zentroak daude aipatuta (2.4.1 paragrafoa).

Zerbitzu hori, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez arautzen da. Arau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira berariaz adinekoentzako ostatu-zerbitzuak,

zehazki, tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak. Orain, aldaketa horren bidez, salbuespena zabaltzeko nahi da desgaitasuna duten pertsonentzako bizitokiak diren eta etorkizunean erregulazio propioa izango duten etxebizitza lagunduetan.

2021ean, Eusko Jaurlaritzak esku-hartze publiko eta parte-hartzaileko prozesu bat jarri zuen abian adinekoen egoitza-zentroetako adinekoen bizi-baldintzen inguruan. Bertan, inplikaturako eragile guztiek parte hartu zuten (foru-aldundiek, egoitzak erabiltzen dituzten adineko pertsonak, haien familiak, lanbide-elkargoak, sindikatuek, patronalek, egoitzetan lan egiten duten profesionalak...), baita ospe handiko aditu talde batek ere. Prozesu horretatik ateratako ondorioen artean, dekretua hobetzea proposatu zen, besteak beste, mendetasun-maila bakoitzaren premia bereiziaz, lotura fisikoaren erabilera hobeto arautzea eta ratioen formulazioa birplanteatzea.

Era berean, Covid-19ak eragindako krisi sanitario eta sozialaren ondorioz, eragin ekonomiko eta gizatiar izugarria izan du egoitza-zentroetan, eta egoera horrek estamentu guztiei eragin die (erabiltzaileak eta senideak, zentroetako arduradunak eta profesionalak, administrazio publikoak...), eta agerian utzi ditu sistemaren kudeaketan eta antolaketan, espazio fisikoaren egokitzapenean, lankidetzaren soziosanitarioko egituren sorreran eta berrikuntzaren eta arretaren eta zainketen ebaluazioaren garrantzian hobetzeko beharrak.

Azaldutakoa kontuan hartuta, dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua aldatu nahi du, arau-esparrua egokituz arreta eta zaintza pertsonalizatua oinarritutako arreta-ereduaren trantsizioa bultzatzeko baldintzak hobetzeko; bizitzaren amaierari eta euskalari buruzko artikulua eguneratuz, eta egoitza-zentroak kudeatzeko jarduketaren protokoloak digitalizatzeko eta plataforma digitaletan errazago sartu eta integratzeko beharra txertatuz.

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak xxxxxx bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 2. artikulua 2. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«2. – Berriaz salbuesten dira dekretu honen aplikazio-eremutik adinekoentzako ostatu-zerbitzuak, hau da, tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta etxebizitza lagunduak, eta horien araubidea erregulatu bidez zehaztuko da.»

Bigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 3. artikulua 2. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«2. – Intentsitate handiko zentroak dira, eta honako hauek bermatzen dituzte: a) zaintzaileen presentzia iraunkorra – egunean 24 orduz –; b) mediku- eta erizaintza-zerbitzu bat ematea; c) pertsonengan eta haien arteko harremanetan oinarritutako arreta

integrala emateko profil egokiak dituen diziplina anitzeko profesional-talde baten laguntza, ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideratua.»

Hirugarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 5. artikulua 1. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«5. artikulua.– Hartzaileak

1.– Egoitza-zentroen erabiltzaileak mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dauden 65 urtekoak edo zaharragoak izango dira, eta, salbuespenez, adinez nagusi izan eta egoera pertsonala eta soziala kontuan hartuta horiekin pareka daitezkeenak.

Atal honetan aurreikusitako salbuespenezko kasuetan, behar bezala egiaztatu eta justifikatu beharko da adinekoentzako egoitza-zentro batean emandako arreta egokia dela pertsonaren premiei eta lehentasunei erantzuteko.»

Laugarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 6. artikulua 2. zenbakiari 1. paragrafoaren g) letra, eta c) atala gehitzen zaio; honela geratzen da idatzita:

«1.- Adinekoentzako egoitza-zentroek euren jarduketak bideratzeko printzipio gidari hauek bete behar dituzte:

g) Arreta pertsonalizatuaren eta integralaren printzipioa: pertsonak eta haien harremanak ardatz dituen arreta-ikuspegitik, arreta integraleko, pertsonalizatuko eta erabiltzaile bakoitzaren beharretara eta lehentasunetara egokitutako ereduak sustatuko dira. Halaber, pertsona guztiak bereziak direla kontuan hartuta, guztien intimitatea eta duintasuna errespetatuko da; beraz, behar den laguntza emango da nork bere nortasun bakana gorde dezan.

2.- Dekretu honetako xedapenak hauen arabera interpretatuko dira:

c) Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legean jasotako xedapenak.»

Bosgarren artikulua. - Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 10. artikulua 2., 3. eta 4. paragrafoak, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Zentro guztiek arreta- eta zaintza-moduluetan antolatuta egon beharko dute, eta modulu bakoitzean gehienez 25 plaza egongo dira. Adinekoentzako egoitza-zentro berriek gehienez 150 plaza izango dituzte.

3. Egoitza-zentroen bizi-kalitatea egoitzako adinekoen beharrak eta lehentasunetara egokitu beharko da, batez ere bizigarritasuna, espazioa, segurtasuna, irigarritasuna, orientazioa eta espazio pribatua kontuan hartuta.

4. Adinekoentzako egoitza-zentroek behar beste instalazio edo ekipo izango dituzte adinekoen beharrak eta lehentasunetara egokitutako arreta eman ahal izateko. Beharrak eta lehentasunak aldatu ahala egokitzen joateko etengabeko prozesu bat finkatuko da.»

Seigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 13. artikulua 3. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Erabiltzaileak ibiltzeko guneetan, alde bietan eskudelak instalatuko dira.»

Zazpigarren artikulua. - Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 17. artikulua 2. paragrafoaren c), d) eta e) atalak, eta honela geratzen dira idatzita:

«c) Logela bikoitzen gutxieneko azalera erabilgarria 22 m²-koa izango da, bainugela kontuan hartu gabe.

d) Banako logelen gutxieneko azalera erabilgarria 15 m²-koa izango da, bainugela kontuan hartu gabe.

e) Bainugelak gutxienez 5 m²-ko azalera erabilgarria izango du, eta erabilera indibiduala eta eskusiboa izango du logelaren erabiltzaileentzat.»

Zortzigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 22. artikulua 4. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«4– Unitate bakoitzeko gehieneko plaza kopurua 25 erabiltzailekoa izango da.»

Bederatzigarren artikulua. - Hiru d), e) eta f) atal gehitzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 25. artikulua 1. zenbakiari, eta honela geratzen da idatzita:

«25. artikulua. – Arreta-eredua.

1.– Adinekoentzako egoitza-zentroetan aplikatzekoa den arreta-ereduak oinarrizko osagai hauek izango ditu:

Arreta integrala eta pertsonarengan eta pertsonarekiko harremanetan zentratua.

Kalitatearen kudeaketa.

Eskubideen bermea.

Berrikuntzaren koordinazioa.

Ebaluazioaren koordinazioa

f) Koordinazio soziosanitarioa.»

Hamargarren artikulua. - Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 26. artikulua 1. eta 2. paragrafoak, eta honela geratzen dira idatzita:

«26. artikulua. – Arreta integrala eta pertsonarengan eta pertsonarekiko harremanetan zentratua

1.– Egoitza-zentroetako egoiliar bakoitzari arreta integrala emango zaio, hau da, osasun- eta ongizate-eredu globala lortzera zuzendutako arreta, hauek barnean hartuta eta elkarrekin koordinatuta: alderdi sanitarioak, fisikoak, sozialak, psikologikoak, ingurumenekoak, bizikidetzakoak, harremanetakoak, kulturalak eta antzeko beste batzuk. Era berean, arreta modularreko erakunde guztiak atxikitako zaintzaileekin izango dira, pertsona eta haren harremanak ardatz izango dituen arreta bermatzeko.

2. – Era berean, egoiliar bakoitzaren beharretara eta lehentasunetara egokitutako arreta pertsonalizatua emango da, Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Plan baten bidez. Plan horrek arretaren pertsonalizazioa bermatuko du, eta arreta eta zaintzan elkartzen diren alderdien arteko koordinazioa ezarriko du, osasunaren eta ongizatearen eredu globala bermatzeko.

5-. Ikuspegi hori aplikatzeak hauek ahalbidetzen ditu:

a) Indibidualtasuna eta pertsonen arteko aldeak errespetatzea, eta pertsonen beharrak eta lehentasunak zentroaren egituraren beraren baliagarritasunaren arabera definitzeko joerari aurre egitea.

b) Pertsonen beren gaitasunak eta jarrerak gordetzen laguntzea, beren bizitzaren gaineko kontrola izan dezaten, nor bere mugen eta ahalmenen arabera, eta, era berean, beren bizitzaren gaineko ardura hartzen laguntzea.

c) Egoiliarren bizitzari bere alderdi guztietan eustea, bizitegi-bizitzara mugatu gabe, beste laguntza formal eta informal batzuek bizitzan duten zeregina kontuan hartuta, bai eta bizitza komunitarioarekin lotutako jardueretan parte hartzea ere, pertsonengan eta haien arteko harremanetan oinarritutako arreta eta zaintza hobeto koordinatzeko neurriak hartuz.

d) Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Planaren diseinuan eta jarraipenean parte hartzea. Plana erreferentziazko profesional baten koordinaziopean kudeatuko da, eta kasu konplexua denean, diziplinarteko profesional talde batek gainbegiratu du. »

Hamaikagarren artikulua.- Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroein buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 27. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«27. artikulua. – Erreferentziazko profesionala.

Egoiliarren arreta pertsonalizatzen laguntzeko ardura duen figura da, eta etengabeko laguntza eskaintzen du, egunerokoan, eta erreferente nagusia da pertsona-talde txiki batentzat eta haien familientzat.

Erreferentziako profesionala egoiliarren Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatuaren arduraduna da, eta gainerako langileekin komunikatzeko eginkizuna du, Plana egunerokoan gauzatzeko, familia barne.

Egoiliar guztiek egoitza-zentroko erreferentziazko profesional bat izango dute esleituta. Profesionalek zentroan esleituta dituzten beste eginkizun batzuk alde batera utzita, erreferentziako langileek honako koordinazio-funtzio hauek betetzen dituzte:

a) Konfiantzazko harremana ezarri behar du erabiltzailearekin eta haren senideekin,

eta zentroaren, egoiliarren eta haren familiaren/hurbileko pertsonen edo legezko arduradunen arteko komunikazio-kanalean eratu behar da.

b) Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua egiten parte hartu behar du, pertsonaren ikuspegi orokorra, itxaropenak, lehentasunak eta bizi-estiloa kontuan hartuta, eta, ondoren, plana betetzen eta garatzen dela bermatu.

c) Esku-hartze eta terapiak Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatuan ezarritakoa errespetatzen eta koordinatzen dutela zaindu behar du.

d) Erreferentziazko profesionalaren figura lanbide-kategoria bati lotuta ez badago ere, zuzeneko arretako langileei lotuta egon beharko du.

e) Erreferentziako profesionalaren eginkizunek eta zereginak egoiliarrentzat, senideentzat eta hurbilekoentzat zehaztuta eta eskuragarri egon behar dute, bai eta egoitza-zentroko arreta-profesional guztientzat ere (zuzenekoak eta zeharkakoak).»

Hamabigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 28. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«28. artikulua. – Kudeaketa-, berrikuntza- eta ebaluazio-eredua

1. – Egoitza-zentroen kudeaketa-ereduaren helburua egoiliarren bizi-kalitatea hobetzera bideratutako prozesu guztiak etengabe hobetzea izango da. Garrantzi berezia dute euskarri administratiboak, ekonomiko-finantzarioak eta informazioaren kudeaketakoak garatzeak, pertsonarengan eta haren harremanetan oinarritutako arreta-eredua bultzatzearekin lotuta.

2. – Egoitza-zentroen berrikuntza-ereduaren helburua berrikuntza garatzea izango da, hainbat dimentsiotan: terapeutikoak, sozialak, antolamendukoak, teknologikoak, espazio fisikoak eta komunikaziokoak egokitzeak. Berrikuntza honela uler daiteke: produktuak, zerbitzuak, metodologiak eta tresnak sortzea/egokitzea, pertsonarengan eta haren harremanetan oinarritutako arreta-eredua bultzatzeko, egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko.

3.– Egoitza-zentroen ebaluazio-ereduaren helburua egoiliarren bizi-kalitatearen eta ongizatearen, kudeaketaren kalitatearen eta arretaren eta zainketen kalitatearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak garatzea izango da. Zentroak hiru urtean behin ebaluatu beharko dira modu integralean, kanpo-ebaluaziorako oinarria den barne-ebaluazioko (autoebaluazioa) eredu bati esker. Barne-ebaluazioko prozesuen emaitza gisa, Kalitatea Hobetzeko Plan bat egingo da. Plan horrek pixkanaka zehaztuko ditu egoiliarren bizi-kalitatearen etengabeko hobekuntza, kudeaketaren kalitatearen hobekuntza eta pertsonengan eta horien arteko harremanetan oinarritutako arreta- eta zaintza-ereduaren hobekuntza zehazteko beharrezkoak diren jarduketak. Kanpo-ebaluazioak kontuan hartuko ditu barne-ebaluazioaren ondoren ezarritako Kalitatea Hobetzeko Planean lortutako emaitzak.»

Hamahirugarren artikulua. - 28 bis artikulua berri bat gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuari, eta honela dio:

«28 bis artikulua. Zainketa aringarriak eta bizitzaren amaiera

1- Printzipio gidariak. Artikulu hau uztailaren 8ko 11/2016 Legean ezarritako printzipioek eta erregulazioak arautzen dute (11/2016 Legea, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzekoa). Bertan ezartzen denez, pertsonak eskubidea du bizitzaren amaieran informazio klinikoa izateko, baimen informatua izateko eta erabakiak hartzeko, bai eta intimitaterako, pribatutasunerako eta konfidentziasunerako eskubidea ere, eta aurretiazko borondateen adierazpena egiteko eta borondate horiek errespetatzeko ere.

2- Zerbitzuen koordinazioa: Egoitza-zentroetan zainketa aringarriak eta bizitzaren amaiera bermatzeko, Osakidetza laguntza-zerbitzuekin modu eraginkorrean koordinatzeko mekanismo bat egituratuko da, hala eskatzen duen egoiliar orori zaintza aringarriak eta bizitzaren amaiera kalitatezkoa emango zaizkiola bermatzeko, eta pertsona batek bere etxean jaso dezakeen arreta-motarekin parekatuko da.

3.-Zainketa Aringarrien eta Bizitzaren Amaierako Plana: Egoitza-zentroetan zainketa aringarriak eta bizitza-amaiera eraginkortasunez txertatzeko, Zainketa Aringarrien eta Bizitzaren Amaierako Plan bat diseinatu eta ezarriko da. Plan horrek, gutxienez, honako irizpide hauek bete beharko ditu:

- Planaren kudeaketaz arduratuko diren pertsonak edo taldeak ezartzea;
- Mina kudeatzeko estrategia integrala definitzea;
- Aurretiazko borondateen zerbitzuaren ezaugarriak ezartzea;
- Osakidetza laguntza-zerbitzuekin koordinatzeko mekanismoak zehaztea, bizitzaren amaieran laguntza mediko, fisiko eta espiritualerako eskura jartzen diren bitartekoak definitzeko.

4.-Sentsibilizazio- eta Prestakuntza-programa. Zainketa aringarrien eta bizitzaren amaierako planen inplementazio egokia bermatzeko, egoitza-zentroek arlo horretako sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa edo -jarduerak ezarriko dituzte.»

Hamalugarren artikulua.- Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 29. artikulua 1. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«1. – Arreta sanitarioa: egoitza-zentroak arreta sanitarioa izan dezatela ahalbidetuko du, erabiltzaileek aukeratutakoa errespetatuta. Edonola ere, bermatu beharko da erabiltzaile guztiek behar duten arreta sanitarioa izatea, barneko zein kanpoko baliabideen bidez emana. Horretarako, egoitza-zentroek Koordinazio Soziosanitarioko Plan bat izan beharko dute, egoitza-zentroek eta osasun-zentroek egoitza-zentroetako osasun-arretan laguntza, euskarria eta laguntza koordinatzeko mekanismoak zehaztuko dituen.»

Hamabosgarren artikulua. - Artikulu berri bat eransten zaio, 29 bis artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuari, eta honela dio:

«29 bis artikulua. – Ebaluazioa, berrikuntza eta zentroen eremu soziosanitarioa

koordinatzeko batzordea.

1.- Zentroen ebaluazioa, berrikuntza eta eremu soziosanitarioa koordinatzeko batzordea da koordinazio soziosanitarioan eta kalitate eta berrikuntzako gaietan laguntzeko kontsulta-organoa, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dagoena, eta bere funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideez hornituko du.

2.- Ebaluazioa, berrikuntza eta zentroen eremu soziosanitarioa koordinatzeko batzordea gizarte-politiken eta koordinazio soziosanitarioaren eremuko maila eta esparru instituzional desberdinetako 9 ordezkari osatzen dute. Pertsona hauek osatzen dute:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hiru ordezkari, horietako bi Gizarte Zerbitzuen arlokoak eta bat Koordinazio Soziosanitarioaren arlokoa. Honako eginkizun hauek izango dituzte, hurrenez hurren:

a) Lehendakaritza: gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra

b) Lehendakariordetza: arreta soziosanitarioan eskumena duen zuzendaritzako titularra

c) Idazkaritza: gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularra.

b) Foru-aldundien sei ordezkari, erakunde bakoitzeko bi, eta horietako bat diputazio bakoitzaren ordezkaria izango da dagokion lurralde historikoko Lurralde Kontseilu Soziosanitarioan.

3.- Batzordearen araubidea eta funtzionamendua barne-erregelamendu baten bidez arautuko dira. Erregelamendu hori Batzordea eratu ondoren idatzi eta onartuko da. Erregelamendu horretan aurreikusi ez den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko zaio.

4.- Batzordea osatzen duten pertsonen izendapenak emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitza Libreterako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

5.- Funtzioak

a) Zentroetako autoebaluazioa koordinatzea. Batzordeak hiru funtzioen bidez koordinatuko du zentroetako autoebaluazioa.

– Estandarrak. Estandarrak, parametroak eta irizpideak definitzea kalitatea ebaluatzeko gida edo gidalerroen bidez, zentroek dekretu honen 28. artikuluan aurreikusitako autoebaluazio-prozesuak aplikatzeko orientabideak izan ditzaten.

– Jarraipena. Autoebaluazio-prozesuen jarraipena egitea, foru-aldundiek emandako urteko txostenen bidez.

– Gomendioak. Gomendioak egitea, hala badagokio, jarraipen-prozesutik

eratorritako zentroetako autoebaluazio-prozesuak hobetzeko.

Zentroen kanpo-ebaluazioaren hedapena, inplementazioa eta gauzatzea lurralde historiko bakoitzean xede horretarako eskuragarri jartzen diren egungo edo etorkizuneko erakunde, egitura edo batzordeak koordinatuko dute.

b) Zentroetako berrikuntza koordinatzea. Batzordeak hiru funtzioen bidez koordinatuko du zentroetako berrikuntza.

- Estandarrak. Parametro eta irizpide orokorrak ezartzea, ez-lotesleak, egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko eta zentroetan arreta- eta zaintza-eredu berriak bultzatzeko helburuak proposatzen dituzten programa, proiektu edo jarduera experimental eta berritzaileak garatzeko eta ebaluatzeko, dekretu honen 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Balidazioa. Proiektu experimentalak baliozkotzea, dekretu honetan ezarritako zentroen funtzionamendu-parametroren bat aldatzen dutenean. Aldaketa horiek bi (2) urteko iraupena izango dute, eta urte bat (1) gehiago luzatzeko aukera egongo da (gehienez hiru urte). Ezarritako epea amaitzean, eta ebaluazio sistemiko baten ondorioz, lortutako emaitza esperimentalek arreta- eta zaintza-eredua funtsean hobetzen dutela uste bada, eta eredu hori orokortzea eta egonkortzea komeni dela uste bada, dagozkion eskakizun materialak, funtzionalak eta langileei dagozkienak arautu beharko dira.

- Publizitatea. Urteko txosten publiko bat egitea, zentroek bultzatutako esperimentazio- eta berrikuntza-prozesu guztiak bilduko dituen.

c) Zentroetako koordinazio soziosanitarioa indartzea. Batzordeak zentroetako koordinazio soziosanitarioa sustatuko du, hiru funtzioen bidez.

- Estandarrak. Zentroek ezarri behar dituzten koordinazio soziosanitarioko planak diseinatzeko parametro eta irizpide orokorrak ezartzea, dekretu honen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Jarraipena. Koordinazio soziosanitarioaren jarraipena egitea, foru-aldundiek emandako urteko txostenen bidez.

- Gomendioak. Zentroetako koordinazio soziosanitarioko planak ezartzeko prozesuak hobetzeko gomendioak egitea, hala badagokio.

Hamaseigarren artikulua. - Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 30. artikuluen 1. paragrafoaren j), k) eta l) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«j) Beharrak eta lehentasunak ebaluatu, eta erabiltzaileari edo legezko ordezkariari emaitzen berri eman.

k) Beharren eta lehentasunen ebaluazioak emandako datuekin, Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua egitea, zerbitzu-zorroko jarduerak eta programak estaliz eta helburu asistentzialak ezarriz.

Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua egitea eta ziurtatzea, egoiliarren etengabeko arretaren beharretara eta lehentasunetara egokituz.»

Hamazazpigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 31. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«31. artikulua. – Egonaldi-fasea: beharren eta lehentasunen ebaluazioa eta Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Planaren diseinua.

– Balorazio integrala eta Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatuak egitea da arreta geriatrikoaren oinarria, eta adinentzako zerbitzuen filosofia arreta pertsonalizatu integralean oinarrituko da.

– Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua banakako programazio bat da, esku-hartzea egoiliarren banakako behar eta lehentasunetara hobeto egokitzen dela bermatzen duena, eta gutxienez honako eduki hauek jasoko dituen dokumentu batetik abiatuta egingo da:

Balorazio geriatriko integrala (arreta-eremu garrantzitsuak: osasuna, psikologikoa, soziala eta gaitasunen balorazioa).

Bizitzaren Historia egitea: Bizitzaren historia identifikatzea eta balioestea. Bertan, jaso nahi diren arreta eta zainketetarako ibilbidea, balioak eta lehentasunak zehazten dira.

Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua egitea: Planak helburu zehatzak ezarri behar ditu prebentzioaren eta laguntzaren esparruan, eta eguneroko jardueren programa bat zehaztu behar du (bizitzaren historiaren arabera jarduera esanguratsuak). Jarduera horiek zehatzak, lorgarriak eta ebaluagarriak izan behar dute.

– Beharren eta lehentasunen ebaluazioa egiteko, talde zehatz horretarako tresna balidatu eta egokituak erabiliko dira.

– Balorazio-prozesua beti adostu beharko da, eta pertsona eta haren harremanak ardatz dituzten helburuak lortzera bideratu beharko da, eta ez bakarrik defizitak eta gaixotasunak ebaluatzea, baita gaitasunak, funtzioak eta erlazio positiboak ebaluatzea ere.

Diziplinarteko taldearen aldizkako bilerak egingo dira, ahal dela astean behin eta nahitaez hilean behin, Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Planen plangintza eta jarraipena egiteko. Hori guztia, dokumentu hori dinamikoa/bizia izan dadin, une bakoitzean erabiltzailearen egungo egoera jasoko duena.

Diziplina arteko taldearen osaerak bermatu behar du zentroak dituen arreta zuzeneko profesional guztiek (teknikariek, zaintzaileek eta gerokultoreek) parte hartuko dutela, beren lan-eremutik, Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Plana egiten.

Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Plana planifikatzen eta gauzatzen esku hartzen duten profesionalen kalterik egin gabe, erabiltzaile bakoitzak erreferentziako profesional bat izan behar du gutxienez, bere planaren xehetasunak ezagutzeko.

Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua egiteko egoiliarrek eta, hala badagokio, erreferentziazko senide edo pertsonen parte hartuko dute.

Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua idatziz emango zaio erabiltzaileari edo

erreferentziako pertsonari, erabiltzaileak hala nahi badu. Ematen denean, argi azalduko da haren edukia.

Komenigarria da profesionalak erabiltzailea baloratzea lehen 15 egunen barruan.

Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatua benetan sartu zenetik lehen bi hilabeteak betetzen direnean osatuko da.

– Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatuaren berrikuspena gutxienez urtean behin egin behar da, edo erabiltzailearen egoeraren aldaketa esanguratsu baten aurrean planteatutako helburuak aldatzea eskatzen duen guztietan, egindako berrikuspenak erregistratuz, sartu eta hiru hilabetera egindako egokitzapenaren balorazioaren emaitza barne.

Urteko berrikuspenaren eta hurrengoaren artean profesionalak egindako Arreta eta Bizitza Pertsonalizatuko Planaren doikuntzak erregistratzeko sistema bat izango da.

– Hilabetera heltzen ez diren aldi baterako egonaldietan, sarrera horiek izan behar duten arretarako gutxieneakoak ezarriko dira; horretarako, «oinarrizko zainketen plana» izango da, arreta-eremu desberdinetako profesionalak eginga, sartzen den unetik bertatik, eta horren guztiorren helburua izango da aldi baterako egoitzaratutako pertsonen kalitateko arreta bermatuta izatea.»

Hemezortzigarren artikulua. - Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 34. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«34. artikulua. – Euskailurik Gabeko Arreta eta arrisku-egoerak

- Egoitza-arretako zentroek arreta libreko euskailurik gabeko konpromiso formala egiaztatu beharko dute. Konpromiso hori Euskailurik Gabeko Arreta Plan baten bidez egiaztatuko da. Plan horrek euskailuak erabat eta modu seguruan kentzea jasoko du, eta esku-hartze prebentibo eta positiboko ereduak sustatuko ditu egoitza-zentroko arreta- eta zaintza-zerbitzurako erronka diren jokabideen kudeaketan.

– Euskailurik Gabeko Arreta Plana behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, egoitza-zentroek arreta zuzeneko langileentzako prestakuntza-programetan sartuko dira, euskailurik gabeko arretari dagokionez, eta jokabide-laguntza positiboko metodologietan edo antzekoetan prestakuntza eta gaikuntza sustatuko dute.

- Ez da inolako euskailurik ezarriko, salbuespenezko eta premia larriko egoeretan izan ezik, baldin eta berehalako arriskua badago erabiltzailearen, zaintzaileen edo hirugarrenen segurtasun fisikoa arriskuan jartzeko, eta aldez aurretik egoiliarren historia klinikoan beste neurri terapeutiko alternatibo batzuen porrota erregistratu bada. Salbuespenezko kasuetan, edozein euskailu-mota aplikatzeko, medikuaren agindua bete beharko da beti, eta berariazko protokolo baten barne eman beharko da.

– Euste-protokoloan ezarri beharko dira aplikatu beharreko euskarri-mota, jarraitu beharreko prozedurak, iraupena eta gainbegiratzea. Protokolo hori behar bezala dokumentatuta egon beharko da egoiliarren historia klinikoan, formalizatuta eta digitalizatuta horretarako diseinatutako erregistro batean.

- Protokolo hori salbuespen, premia, proportzionaltasun eta gehiegikeriaren debekuaren printzipioen arabera aplikatu behar da, behar-beharrezkoa eta mugatua den denboran. Aipatutako printzipioez bestelako inguruabarretan, tratu txarren baliokidea da lotura edo euste luzea.

- Euste-protokoloak bateraezinak dira egoiliarren duintasunarekin eta eskubideekin, eta erabat debekatuta geratzen dira diziplina-helburuetarako erabiltzen direnean edo arreta kudeatzeko komenigarritasunagatik erabiltzen direnean (denbora, ahalegina edo baliabideak aurrezteak).

- Euste-protokoloa aplikatu behar denean, egoiliarrari informazioa emango zaio eta berriazko baimena beharko du. Era berean, egoiliarrari lotutako pertsonen informazioa jasoko dute eta baimena beharko da, familia-arrazoiengatik edo egitatezko arrazoiengatik, egoiliarrak berriaz edo isilbidez horretarako aukera ematen duen neurrian. Egoiliarrari informazioa emango zaio, baita profesional mediko arduradunaren iritziz bere gaitasuna gauzatzeko laguntza behar duenean ere, bere ulermen-aukeren arabera, eta bere legezko ordezkariari ere jakinarazi beharko dio, hark adostasuna adieraz dezan. Era berean, egoiliarrak, profesional arduradunaren iritziz, bere egoera fisiko edo psikikoagatik informazioa ulertzeko gaitasunik ez badu, informazioa egoiliarrari lotutako pertsonari jakinaraziko zaie, familiako edo egitezko arrazoiengatik, eta horiek beharrezko baimena emango dute.

– Euskailu kimikoak praktika mediko txartzat hartzen dira arretan eta zainketetan. Tratamendu farmakologikoak egoiliarraren historia klinikoan dokumentatu beharko dira nahitaez, eta profesional mediko batek agindu beharko ditu, tratamenduaren jarraibideak, posologia eta iraupena dokumentatuz.

– Egoitza-zentroak behartuta daude, gaian eskumena duten agintariekin lankidetzan, egoiliar bati eusteko protokoloa aplikatzearen ondorioz kalte edo heriotza eragiten dion edozein gertakari larriren azterketa integrala egitera.

– Zentroak arduratuko dira erabiltzaileentzat beharrezkoak diren espazio fisikoak atontzeaz eta haienezko babes- eta kontrol-neurriez; batez ere pertsona horien baldintza fisiko edo psikikoengatik haien osotasunarentzako arrisku-egoerak aurreikus daitezkeen kasuetan. Horrela, besteak beste inor noraezean ibiltzeko edo ihes egiteko arriskurik sortuz gero, segurtasuna bermatuko duen espazio edo teknologia egokia jarriko da.

11.– Adinekoekiko tratu desagokiak eta tratu txar fisiko, psikiko eta ekonomikoak prebenitzeko eta halakoak antzemateko prozedurak ezarriko dituzte zentroek. Horretarako, zenbait estrategia erabiliko dute:

Antolamenduan, hauek denak bultzatuko dituzte: errespetua, erabiltzaileen eskubideen sustapena eta defentsa, jardunbide egokien gidak, jardun-arauak eta jardun-protokoloak.

Langileei etikaren eta tratu onaren inguruko etengabeko prestakuntza emango diete.

Erabiltzaileak eta familiak sentsibilizatuko dituzte.»

Hemeretzigarren artikulua. - Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren

eremuan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 36. artikulua 1. paragrafoaren c) eta j) letrak, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Egoitza-zentroek dokumentazio hau izango dute, eta euskarri digitalean egongo da eskuragarri.

c) Historia kliniko bateratua. Osabide Integrak zentroetan bizi diren pertsonen buruzko osasun-informazioa (historia klinikoa) eskaintzen du. Osabide Integra koordinazio soziosanitarioko oinarritzko tresna da, eta historia kliniko bateratua eta komuna izatea ahalbidetzen du, osasun-arreta ematen den lekua edozein dela ere. Integrazio horrek, informazio klinikoa eskuratzeko gain, egoiliarren osasun-egoeraren bilakaerari buruzko informazioa ematea ahalbidetu behar du.

j) Egoitza-zentroak kudeatzeko jarduketako protokoloak digitalizatuta egon behar dute, plataforma digitalean errazago sartzeko eta integratzeko. Hona hemen protokolo horiek:

1.- Hasierako arreta-protokoloak:

Aurresarrera-protokoloa.

Sarrera-protokoloa.

Egokitzapen-protokoloa.

2.- Arreta eta Bizitza Plan Pertsonalizatuan ezarritako protokoloak

3.- Telelaguntzan oinarritutako arreta-protokoloak edo kontsultetarako eta unean uneko aholkularitzarako bitarteko digitalak, arrisku sanitario txikiko egoeretara mugatuta.»

Hogeigarren artikulua. - Idazketa berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren 39. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«39. artikulua. – Lanbide-kategoriak eta -erantzukizunak.

– Egoitza-zentroetako langileria profesional-talde batek eratuko du; behar beste profesional izango dira, eta behar besteko trebakuntza eta esperientzia izango dute, erabiltzaileek behar duten arretan erantzukizunak hartzeko eta eremuak garatzeko.

– Egoitza-zentroek langile hauek izango dituzte:

Egoitza-zentroen zuzendaritza

Zentroaren zuzendaria: zentroaren ordezkaria da eta eginkizun hauei loturiko zuzendaritza-egitekoak dagozkio: zentroaren antolaketa, jardueren barne- eta kanpo-koordinazioa eta laguntzen gainbegiratzea. Bermatuko da zuzendariaren berehalako presentzia edo bera topatzeko aukera, eta, bera egon ezean, arduradun baimendu bat egongo da; arduradun hori zentroaren organigraman agertuko da.

Zeharkako arretako langileak

– Administrazio-ko langileak: kudeaketa- eta antolaketa-eginkizunekin lotutako dokumentazioa egiteko eta kontserbatzeko behar den administrazio-laguntza ematen dute.

– Zerbitzu orokorretako langileak: sukaldeko, garbitegiko, garbiketako, mantentze-lanetako eta harrerako edo atezaintzako eginkizunak betetzen dituzte.

Artikulu honen 3. paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, ekipo horiek tresna pertsonalen garbiketa eta higieena ere egin ahal izango dute, baita erabiltzaileen arropa edo egonaldiak ordenatu eta jaso ere. Zeharkako arretako langile horien barruan, podologiako eta ile-apainketako zerbitzua erabili ahal izango da.

Arreta zuzeneko langileak

